

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure enpresaren kasuan, hainbat funtsezko jarduera egin ditugu. Esaterako, lokalean hainbat erreforma egin eta gure bezeroentzako prestatzea izan da egin dugun produkzio jarduera. Izan ere, gure lokalak aldaketa batzuk beharrezkoak zituen bezeroentzat erakargarria izan zedin. Eginkizun hau izan zen denetatik garrantzitsuena, izan ere, enpresa sustatzeko ezinbesteko pausoa zen.

Printzipioz, ez dugu arazorik, baina arazo-konponketa jardueraren bat beharrezkoa bada, egingo dugu.

Sareko jarduerak berriz, geure enpresa ezagutzera eramateko eta etekinak maximizatzeko, sarean, hainbat jarduera eginez, geure helburuak lortzea ahalbidetu digute. Esaterako, sare sozialen (Instagram, Facebook...) edota webgunearen bidez, geure enpresari buruzko informazioa ematen dugu enpresaren funtzionamenduari edo tarifei buruzkoa, eta horrela bezeroak informatu eta erakartzea lortu dugu. Bezeroei zuzendutako arreta pertsonala ere *online* eskaintzen dugu.

Gure helburu nagusietako bat bezeroak erakartzea denez, lokalean eskaintzen dugun beste zerbitzu bat janari eta edari makina da. Makina honek, etekin edo irabazi extra batzuk emateaz gain, bezeroen behar batzuk asetzen ditu.